

Lan-eskaintza

Software arloko garatzailea

NEWRO PROIEKTUA

NEWRO iktus-pazienteentzako (arinetik hasi eta larrira arte) garuna-makina interfaze hibridoan oinarritutako neuroerrehabilitazioko terapia da. Pazientearen jarduera zerebrala eta muskularra dekodifikatu egiten da, exoeskeleto robotiko bat denbora errealean kontrolatzeko.

Joan proiektura



Lanaldi osoa



Donostia



Hibridoa

Zeregin nagusiak

Pertsona hori NEWROren SWaren bizitza-ziklo osoan barneratuta egongo da.

Funtzio nagusiak:

- Honako hauek jasoko dituen SW baten arkitektura eraikitzea: klinikoentzako erabiltzaile-interfazea, exoeskeleto baten kontrol-modulua eta seinale neuralak prozesatzeko modulua.
- SWa garatzea eta exoeskeletoarekin probatzea (eta, jarraian, banako osasuntsuekin).
- SWaren ezarpena egiaztatzea finkatutako eskakizunak eta ISO 62304 araudia kontuan hartuta.

Profila

Ingeniaritza informatikoko gradua edo antzekoa, eta 5 urteko esperientzia SW arloko garatzaile gisa honako hauetan lan eginda:

- Python eta C/C++ eta OS Windows eta Linux arloko programazioa;
- Konektatutako gailuen sistema: gailuen arteko komunikazioa, datu-baseak, interfaze grafikorako PyQt esparrua eta abar;
- Kode probagarria sortzea (test unitarioak, integrazioa eta automatizatutako funtzionalak);
- DevOps. praktikak aplikatzea. Ingelesa eta gaztelania menderatzea.

Kontuan hartuko dira hauek:

- ML/IA, FW eta zibersegurtasun arloko ezagutzak.

Interesatzen zaizu?
Sartu hemen, mesedez.